

CASER

INFORMAZIO GEHIGARRIA

1. ARDURADUNA

Identitatea: CAJA DE SEGUROS REUNIDOS, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. IFK A28013050

Sozietate helbidea: Avenida de Burgos 109 – 28050 – MADRIL

Telefonoa: 915955000

2. XEDEAK, EPEA ETA TRATAMENDUAREN ZILEGITASUNA

A. Aseguru kontratua edo aurrekontratua, bizisari plana eta iruzurraren prebentzioa formalizatu eta betetzea.

- Xedearen deskripzioa. aseguru harremana kudeatzea eta kontratua edo aurrekontratua betetzea, bai eta bizisari plana ere, eta bereziki kudeaketa hauek:
 - Arriskua hautatu, balioetsi eta zedarrantzea.
 - Ekarpenen kudeaketa, salbuespenezko likidezia kasuak, prestazioak eta iruzurraren ikerketa.
 - Aktuario eta estatistika azterlan eta kalkuluak egitea.
 - Gogobetetasun inkestak eginaz kalitatea kontrolatzea.

Inola ere ez da erabaki automatizaturik hartuko zure datuen tratamenduan.

- Kontserbazio epea. zure datu pertsonalak gorde egingo dira kontratu harremanak irauten duen bitartean eta indarrean dagoen legedian jasotzen diren epeen arabera ezabatuko dira: gehienez hamar urtera, kapitalak zuritzeari aurrea hartzeko araudian jasotzen denaren arabera.
- Zilegitasuna. tratamendu hauek legitimatzen dituen legezko oinarria kontratua bete beharra eta legezko eginbeharrak bete beharra da. Hartzailaren, partaidearen edo asegurudunaren datu pertsonalen tratamendua, bai eta onuradunen datuena ere, ezinbestekoa da arriskua hautatzeko, horrela aseguru etxearekin kontratu harremana hasi eta garatzeko.

Halaber, datuen tratamendua ezinbestekoa da aseguru etxearen legezko eginbeharrak betetzeko, besteak beste, hauek:

- Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legea.
- Aseguru eta Berraseguru Etxeen Antolamendu, Ikuskapen eta Kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legea.
- Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko legearen testu bateratua onartzen duen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretua.
- Bizisari Plan eta Funtsen Araudiaren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretua.

B. Profil komertzialak prestatzea eta informazio komertziala bidaltzea.

- Xedearen deskripzioa. Ekintza komertzialak egiteko eta zure profilari gehien egokitzen zaizkion zerbitzuak emateko, kontrataturik dituzun poliza eta bizisari planen kudeaketatik ateratzen ditugun datuak erabiliko ditugu, bai eta zure gustuak, afizioak eta beharrak, zeuk adierazi dituzunak. Horretarako, profil honetan oinarrituriko erabaki automatizaturik hartuko ez dugula jakinarazten dizugu. Era berean, zure datuak erabiliko ditugu aseguruarekin eta bizisari planekin zerikusia duten gure produktu eta zerbitzuei buruzko komunikazio komertziala edozein komunikabidetatik eskaintzeko, posta elektronikoa, SMS, MMS edo edo antzekoak erabiliz ere.
- Kontserbazio epea. Zure datu pertsonalak xede horrekin erabiliko dira zuk horren aurkakorik esan arte, eta aseguru etxearekiko harremana amaitu eta bi urte igaro arte.
- Zilegitasuna. Tratamendu hauek legitimatzen dituen legezko oinarria Caserrek aseguru eta bizisari planen zerbitzu eta produktuak bere bezeroen artean merkaturatzeko interes legitimoa da, bai eta bezeroen kontratuak modurik pertsonalizatuenean kudeatzeko ere.

3. HARTZAILEAK

Aurreko puntuan adierazitako xedeekin, zure datu pertsonalak, kasua bada, ondorengo erakundeei komunikatu ahal izango zaizkie:

- a) Berraseguru etxeei.
- b) Koaseguru etxeei.
- c) Iruzzurrari aurrea hartzeko fitxategi komunak tratatzen dituzten erakundeei.
- d) Administrazio publikoei, Legean jasotzen diren kasuetan.
- e) Bankuei eta finantza erakundeei, prima ordainagiriak kobratzeko.
- f) Caser Taldeko erakundeei, ikuskapen, antolamendu eta kaudimen araudia betetzeko.

g) Bizisari plan eta funtsen arloan, Kontrol Batzordeari eta, kasua bada, plana aseguratzen duen aseguru etxeari.

4. INTERESDUNAREN ESKUBIDEAK

Ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, tratatzea mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak aseguru etxera bidalitako eskutitz baten bidez egikarituko dira, hona: Avda. de Burgos 109, 28050 MADRIL (adierazi Lege Aholkularitza / Datu Babesa) edo posta elektronikoz derechosrgpdgrupocaser@caser.es helbidera bidalita, eta DNI edo pasaportearen kopia erantsita.

Era berean, Caser Taldearen Datu Babeserako ordezkariari erreklamazioa formulatu ahal izango diozu postaz helbide honetara bidalita: DPO Grupo Caser, Avda. de Burgos 109 – 28050 MADRIL, edo posta elektronikoz hona bidalita: dpogrupocaser@caser.es.

Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazioa formulatu ahal izango duzu gai honetan dituzun eskubideak hautsi zaizkizula baderitzozu. Informazio gehiagorako bisitatu www.agpd.es webgunea.